



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017-04-10

BILERA ZENBAKIA: 39

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Hiru neska eta mutil bat

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

- 1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA**
- 2. ETXEKO LANAK**
- 3. ERREFUXIATUEI ZUZENDUTAKO EKIMENA**

#### **1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA**

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

#### **2. ETXEKO LANAK**

1. ITSASONDO 2.0 (ALDIZKARIA). Elkarrizketa, errefuxiatuen inguruko albistea eta dokumentalen inguruko idatzia prest daude gaur bertan bidaltzeko.
2. LANGABETUEI ZUZENDUTAKO EKITZAK. Hurrengo bileran landuko da
3. HARRERA EGUNA. Hurrengo bileran landuko da.
4. MEDIKUAREKIN BILDU. Rut Kororekin elkartu da eta hauek izan dira proposatutako gaiak ikastaroak antolatzeko:
  1. Sexualitatea.
  2. Antsietatea eta depresioa.
  3. Elikadura.
  4. Erlajazioa.
5. Elikaduraren inguruko hitzaldi bat antolatu zen baino, Garbiñerekin (hizlaria) hitz egingo da ze aukera dauden ikusteko. Erlajazioari dagokionez Yogako



irakaslea prest dago eta aurrekontua eskatuko zaio.

### 3. ERREFUXIATUEI ZUZENDUTAKO EKIMENA

1. **MURALAK.** Zenbat jartzea erabaki behar da dagoen presupuestoaren arabera (600€), 8 mural daude herrian eta argazki bakoitza 80€ inguru balio ditu. Aukera desberdinak baloratu ondoren, batekin proba egitea erabakitzen da eta horren arabera erabaki. Argazki bat inprimatuta dago eta hori erabiliko da; eman beharreko pausuak:

- Egurrak margotuko dira, denak (pintura erosi)
- Argazkia plastifikatu (forratzeko plastikoa erosi)
- Argazkia egurrera pegatu eta grapatu
- Sarrerako muralari dagokionez, "ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK" logotipoa margotzea erabakitzen da.

2. **EKAINAK 17, EGUNEAN ZEHAR EGINGO DIREN EKINTZAK:** Antolatuko diren ekintzen kartela egingo da publizitatea egiteko, hala ere, oraindik adostua beharreko gauzak geratzen direla kontutan hartu beharra dago:

- **PAELLA SOLIDARIOA.** Edaria, ogia eta postrea ere emango da paellarekin batera eta 150 lagunentzako prestatuko da gehienez. Platerrak eta kubiertoei dagokionez udalera eskatuko dira bestetan bezela.

Bazkariaren prezioa adosten da, lortutako dirua "Salvamento Marítimo" elkarteari ematekoa erabakitzen da. Prezioak:

- 5 urtetik berakoek → 1€ (sinbolikoa)
- 5 urtetik 11 urte bitartekoak (haurrak) → 6€
- 12 urtetik gorakoek → 12€

Bazkarian izena emateko bi deialdi egingo dira, 1.go deialdia maiatzean eta 2.goa ekainean. Tiketak erosteko aukera bigarren goan izango da adostuko diren zenbait egunetan (zehazteko) baina kontutan hartuta, izena emateko epea ekainak 10ean amaitzen dela.



- DOKUMENTALAK: "Astral" eta "Herriko erreportaia" Jabi Julioren argazkiekin ematea planteatzen da. Astral pelikula lortu behar da eta argazkiekin montaia egin (pendiente).
- ZOZKETA. 1€ -ren truke urdaiazpikoa zozketatzearen ideia luzatzen da. Adibidez: gazta baten pisua asmatu beharra, porteri batean gola sartzea leku konkretu batean, edota horrelakoak. (zehaztu gabe)
- MUSIKA-KONTZERTUAK. Musika ekipoa lortu beharra dago eta kontzertu bat emateko aukera dagoen ala ez ere ikusi, preuestorik ez dagoenez, etorritakoek bazkarira gonbidatzea proposatzen da kontzertuaren truke. Ideia desberdinak daude baino ikusiko da: Batukada emakume taldea, Elektrotxaranga, Angel DJ... (zehazteko)
- BOKATA AFARIA. Bestetan antolatu den modura bokata afaria ematea planteatu da. Bokatak 4€-tan.
- BANDEROLAK. "ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK" ekimenaren barruko elkarteak bandelorak salgai izaten ditu, egunean zehar banderola horiek erosteko aukera izatea planteatzen da. Elkartearekin zuzenean harremanetan jarri beharko da (zehazteko)
- HITZA. Ekimenaren difusioa eta sentsibilizazioa lantzeko aukera bezela HITZA aldizkariari gonbidapena luzatuko zaio egunaren "kronika" egiteko (zehazteko).
- BESTELAKOAK. Eguna konpletatzeko eta osatuago geratzeko bestelako ideiak ere sortu dira; ipuin kontalaria, monoziklo erakustaldia, erraldoiak eta buruhaundiak,... Ikusiko da lotzeko aukera dagoen edo burutu daitezkeen ideia berriak sortzen diren.

**EZ BERANDUTZEKO, HURRENGO ONGIZATE BILERA BAINO LEHEN BERRIZ ELKARTZEA ADOSTEN DA, MAIATZA HASIERAN, OSTIRAL BATEAN, DENA LOTZEKO; LOTZEA LORTU DIREN ETA EZ DIREN EKINTZEI BURUZ HITZ EGITEKO.**



ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Langabetuei zuzendutako ekintzak antolatu	Maiatza	ERKUDEN
GOIEKIko genero indarkeriaren inguruko informazioa lortu		
Harrera eguna	Maiatza	DENON ARTEAN
Errefuxiatuei zuzendutako ekimena antolatu	Maiatza	DENON ARTEAN
Elikagai Banaketan aldaketak	Urtean Zehar	ERKUDEN

#### HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, 2017ko Maiatzaren 29an egingo dugu, astelehena arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Aurreko aktaren onarpena
- Etxeko lanen errepassoa
- Langabetuei zuzendutako ekintza
- Errefuxiatuei zuzendutako ekimena